

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Eratu da maiatzaren 24ko Foru Parlamenturako eta kontzejuetarako hauteskundeak antolatuko dituen batzordea

Aldi baterako erakunde bat da, Morrás kontseilaria buru duena eta beste sei kidek osatua

Miércoles, 28 de enero de 2015

Nafarroako Gobernuak gaur egin duen bilkuran Nafarroako Parlamenturako eta kontzejuetarako hauteskundeak antolatuko dituen batzordea eratzen duen erabakia onartu du; aipatutako hauteskundeak datorren maiatzaren 24an egingen dira udal hauteskundeekin batera, baina azken horiek Estatuaren eskumenekoak dira.

Batzordea aldi baterako erakunde bat da, hauteskundeak egin baino hilabete batzuk lehenago eratu ohi dena hauteskunde prozesuen prestaketa lanekin zerikusia duten eragileak koordinatzeko.

Gobernuak hartutako erabakian, batzordearen osaera jaso da: batzordeko burua Javier Morrás izanen da, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria, eta kideak, berriz, honakoak: Lehendakaritzako eta Justiziako zuzendari nagusia, José Luis Ruiz; Informatika eta Telekomunikazioetako, Valentín Elizondo; Toki Administrazioetako, Francisco Pérez; eta Komunikazioetako, Eurne Elío; haiekin batera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko idazkari tekniko nagusia eta Hauteskunde Bulegoko koordinatzailea, idazkari lanetan.

Batzorde hau sortzeko arrazoia foru eta toki hauteskundeen "konplexutasuna" da; izan ere, horiek antolatzeko organo bat baino gehiagoren parte-hartzea, lankidetzeta eta koordinazioa behar dira, bai eta aipatutako organoen giza baliabideak eta bitarteko materialak ere. Hartutako erabakian aurreikusi da, halaber, batzorde honen bileretara kide gehiago etortzeko aukera, horretarako beharra sortzen bada.

Horrez gain, lan zehatzak prestatzeko lantalde bat sortuko da, Hauteskunde Bulegoa izeneko, batzordearen menpe. Lantaldeko kideak batzordean ordezkariak izango dira zuzendaritza nagusien edo bestelako unitateen zerbitzuko langileen artean izendatuko dituzte. Bulego horretaz koordinatzaile bat arduratuko da.

Gogoratu behar da Nafarroako Parlamenturako eta kontzejuetarako hauteskundeak antolatzeko eskumena Foru Komunitateko Administrazioarena dela, zehazki Lehendakaritza eta Justizia Zuzendaritza Nagusiarena.